

Merkatuaren Segmentazioa

Gure proposamena:

Gure merkatu segmentazioa bi motatakoa izango dela esan daiteke. Alde batetik adinaren arabera izango da, eta tarte honetan, bi talde bereiziko ditugu, batetik kontsumitzaile gazteak izango ditugu, 17 urte arte, eta produktu hontaz baliatzeko gurasoen baimena beharko dute. Bestetik 17 urtetik aurrerako publikoa izango dugu, eta hauentzako erosketak librea izango da.

Bestaldetik, beharren arabera moldatuko genuke gure merkatua, hau da, lentilla graduatuak erosiko dituztenentzako (kolorezko lentilla graduatuak), eta, lentilla ez graduatuak erosiko dituztenentzako (Kolorezko lentilla baina graduazio barik).

Gaur egungo merkatua analizatuz, gure merkatua publiko espezifiko batera bideratuta joango dela esan dezakegu. Esaterako “cosplayer moda” (“cosplay”-ak mozerro oso landuak dira, eta fikziozko pertsonaien irudikapen oso zehatzak izaten dira). Azken urteetan moda hau asko zabaldu da, baina arazo handienetako bat kolorezko lentillak ez daudela eskuragarri izan ohi da; horregatik gure proiektua publiko hontara doa bideratuta. Hala ere, ez da nahitanahiezkoa mozerrotzeko beharra izatea lentilla hauek egunerokotasunera ere doaz bideratuta, hau da, publiko inespezifikoak ere erosi ditzazke